

ESPERIENTZIA GOGOR GOIZTIARRAK IZAN
DITUZTEN HAURREN ESKOLARATZE PROZESUAK.
KASU AZTERKETA BAT

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Leiva Arroniz, Enola

Zuzendaria: Lasarte Leonet, Gema

2022

Laburpena:

Ikasle bakoitzak bere bizitzan zehar bizipen eta egoera desberdinak bizi behar izan ditu, kasu askotan bere ikaskuntza prozesuan eragina izanik. Honi, ACE kontzeptuak egiten dio erreferentzia, euskaraz “haurtzaroko esperientzia kaltegarri goiztiarrak” bezala ezagutzen dena. Esperientzia eta egoera horiek (familia barruko arazoak, abusua eta abandonua) eragina izan dezakete ikasleen garapenean; hori dela eta, lan honen helburua eskola bateko kideek, lagin modura hartuta, gai honi buruz dakitena jakitea, errealitatea behatzea eta adituekin informazioa alderatzea izango da, benetan honako egoera baten aurrean egin beharko litzatekeena ikasi nahian.

Hitz gakoak: ACE, familia desegituraketa, abusua, abandonua, atxikimendua, erresilientzia eta gorputz adierazpena.

Resumen:

Cada alumno y alumna a lo largo de su vida, ha tenido que pasar por diferentes experiencias y situaciones, viendo afectado en muchos casos su proceso de aprendizaje. A ello se refiere el concepto de ACE, que en castellano se define como “experiencia adversa en la primera infancia”. Estas experiencias y situaciones (problemas familiares, abuso y negligencia) pueden afectar el desarrollo del estudiante; por lo tanto, el objetivo de este trabajo será averiguar qué saben los miembros de una escuela sobre este tema, observar la realidad y comparar la información con diferentes expertos, tratando de aprender qué es lo que realmente se debe hacer en estas situaciones.

Palabras clave: ACE, desintegración familiar, maltrato, abandono, apego, resiliencia y expresión corporal.

Abstract:

Each student throughout their lives has had to go through different experiences, in many cases affecting their learning process. This is what the concept of ACE (Adverse Childhood Experiences) refers to. These experiences and situations (family problems, abuse and neglect) can affect the student's development; therefore, the objective of this work will be to find out what the members of a school know about this subject, observe the reality and compare the information with different experts, trying to learn what should really be done in those situations.

Key words: ACE, family disintegration, abuse, abandonment, attachment, resilience and body language.

AURKIBIDEA

1.SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
2.MARKO TEORIKOA	5
2.1 ACE eta trauma	5
2.1.1 Familia desegituraketa	9
2.1.2 Tratu txarrak	11
2.1.2.1 Haurren tratu txarrak	12
2.1.2.2 Abusu sexuala	12
2.1.2.3 Abandonua	13
2.2 Familia eta apegoa (atxikimendua)	13
2.2.1 Familia	13
2.2.2 Atxikimendua	15
2.2.3 Apegoa eta eskola	17
2.3 Erresilientzia	18
2.4 Gorputz adierazpenaren garrantzia	20
3. HELBURUAK	21
4. METODOLOGIA	22
4.1 Partaideak	22
4.2 Informazioa lortzeko erabilitako tresnak	22
5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA	24
6. ONDORIOAK	34
7. PROTOKOLOA MARTXAN JARRI	36
8. BIBLIOGRAFIA	37
9. ERANSKINAK	44
9.1 Eranskinak I: Behaketa taula	44
9.2 Eranskinak II: Galdetegia	45
9.3 Eranskinak III: Elkarrizketarako galdetegia	48

1.SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzak dituen helburuen artean, helburu nagusia ikasleen hezkuntza-garapena erraztea da, haien prestakuntza integrala bermatuz, nortasunaren garapen osoa lagunduz eta gaur egungo gizartean giza eskubideen eta herritartasun aktiboa eta demokratikorako giza eskubideen erabateko garapenerako prestatuz, eskola uztea sor dezakeen edo hezkuntzarako eskubidea eskuratzea edo gozatzea eragotz dezakeen inolako oztoporik jarri gabe (157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntza eta antolamendua ezartzen dituen, 2022).

Horretarako, inklusibitatea bermatzea eta arreta pertsonalizatua eskaintzea ezinbestekoa izango da. Baina hau horrela bada ere, errealitatean irakasleek ba al dakite aniztasun egoerei aurre egiten? Zer egin beharko litzateke egoera hauei modu egoki batean aurre egiteko? Hauek izango dira hain zuzen ere marko teorikoaren bidez nahiz landa eremuan arakatu duguna medio erantzuten joango garen galderak.

Badaude ikasle batzuk ez dutenak inolako laguntzarik behar curriculumean zehaztutako helburuak lortzeko. Badaude beste batzuk haien diagnostikoengatik hezkuntza premia bereziak jasotzen dituztenak. Baina badaude beste batzuk ez dutenak inolako diagnostikorik, baina laguntza behar dutenak. Hala eta guztiz ere, ikasle horien beharrak desberdinak izan daitezke. Batzuek gauzak egiteko denbora gehiago edota materiala egokitzea soilik behar dute. Beste batzuek berriz, bizi izan dutenagatik edo bizitzen ari direnagatik curriculumaren egokitzapenaz gain, laguntza gehiago behar dute.

Hori dela eta, desgaitasunen bat ez izan arren, ikasle askok ikaskuntza zailtasunak dituzte. Orain dela gutxi arte, haur hauei ez zitzaien laguntzarik ematen, baina ikusi izan da desgaitasunen bat ez izan arren, baliabide eta behar bereziak dituztela ikasle askok.

Sarrera honetan gaia kanpotik azaldu ostean eta justifikatu ondoren, marko teorikoarekin topo egingo dugu. Lehenik eta behin, ACE¹ kontzeptua eta trauma zer diren azalduko dira. Bigarrenik, ACE kontzeptuaren barruan zein egoera desberdin dauden ikusiko dira. Hirugarrenik, atxikimendua, familia eta gorputz adierazpenaren garrantzia azalduko dira. Behin marko teorikoa bukatuta, lan honen helburuak zehaztuko dira. Helburuak lortu ahal izateko, eskola bateko klaustro guztiari galdetegi bat bidali zaio, 9 ikasgelatako ikasleak

¹ Guk gure egin dugu Felitti eta kolaboratzaileen akronimoa Adverse Childhood Experience (ACE) euskaraz esperientzia gogor goiztiarrak bezala definitu duguna eta aurrerantzean ingeles akronimoa erabiliko dugu.

behatuko dira bi asteetan zehar eta azkenik, eskola bereko orientatzailearekin eta aditu batekin elkarrizketa sakona edukiko da. Bukatzeko, lortutako emaitza guztiak interpretatu ondoren, protokolo bat martxan jarriko da.

2.MARKO TEORIKOA

2.1 ACE eta trauma

Negligentziek, tratu txarrek, etxegabetzeek edo indarkeriek, aurrerago ikusiko dugunez, arazo handiak sor ditzakete neska-mutilen ikaskuntzan eta portaeran, kasu askotan trauma bilakaturik (Miller, d.g.).

Baina goazen traumaz ulertzen dena definitzera. SAMHSA-k (2014), Osasun Mentala eta Substantzia Abusuen kontrako zerbitzuen administrazioak ondo azaltzen duen bezala, esperientzia traumatikoa pertsona batek fisikoki edo emozionalki jasan dezakeenez gaindi bizi dezakeen zirkunstantzia multzoa da. Horrek iraupen luzeko ondorio kaltegarriak izan ditzake, esate baterako, gizabanakoaren funtzionamenduan eta ongizate sozial, fisiko, mental, emozional edo espiritualean (SAMHSA, 2014).

Trauma ez da une batean gertatzen den gertaera beldurgarri bat soilik, baizik eta momentu horretatik aurrera haurraren bizitza osoan zehar agertu daitekeen egoera bat. Gauzak horrela, gaur egun traumak eragindako disfuntzioak dituzten ikasleekin topa gaitzke hezkuntza-fase guztietan. Kontuan izan behar dugu ikasgela bakoitzeko ikasle batek edo gehiagok pairatzen duela trauma egoera eta tutoretzapean bizi diren haurren %75-ak trauma motaren bat jasaten duela (Herzog, 2021).

Egoera horiek ondorio ezberdinak sor ditzake haurrengan. Lehenik eta behin, irakasleekin harremana izatea arazo bihurtu daiteke, ez baitute laguntza eskatzeko ingurunerik, ezta behar dutena dakien heldu baten eredurik ere. Horrez gain, haur horietako askok zailtasunak dituzte helduekiko segurtasun sententzia garatzeko eta jokabide solidarioagoak izateko (Greenberg et al., 2018).

Bigarrenik, autoerregulatzeko gabezia dute, eta horrek zaildu egiten du emozioak kudeatzeko gaitasuna. Gainera, horrek erreakzio emozionalak ezagutzeko eta aldatzeko zailtzen du, aldaketa emozionalak eta lasaitasuna nahiz segurtasun falta areagotuz. Hartara, oso ohikoa da askotan pentsamendu negatiboak izatea (Martínez & Bouquet, 2007).

Hirugarrenik, adbertsitatea ezagutu duten haur horiek batzuetan arriskuarekiko eten gabeko alertan daude. Egoera horrek gehiegizko alerta egoera bizitzea eragiten die eta arriskuen aurrean arreta maila altua dute (Ramirez, 2016).

Azkenik, funtzionamendu exekutiboetan arazoak dituzte, pentsamenduen, emozioen eta jokabideen erregulazioa onartzen duten prozesu kognitiboen multzoan hain zuzen ere (Munakata et al., 2013). Horrek oroimenean, arreta jartzeko orduan, pentsatzeko momentuetan eta klaseko zereginak zein jokabideak planifikatzeko gaitasunetan eragiten du. Hori gutxi balitz, etorkizunean zer gertatuko den ez jakiteak antsietatea eta ezinegona sortzen die (Miller, d.g.).

Kontzeptualizazioaren atal honetan beste kontzeptu bat topatuko dugu adiera zabalago duena: adbertsitatea. Sarreran esan bezala, ACE kontzeptua, Felitti eta bere kolaboratzaileek 1998.urtean elikadura-nahasteak ikertuz zedarritutako kontzeptua da. Estatu Batuetako 13.949 biztanleko biztanleria ikertu zuten. Bertan ikusi izan zen %60-ak haurtzaroan egoera txarrak bizi izan dituela, bai abandonuarekin lotutako bizipenak, bai indarkeriarekin lotutakoak, baita familiaren disfuntzioekin lotutakoak ere (Felitti et al., 1998).

Beraz, adbertsitateak pertsona batek fisikoki zein emozionalki bizi ditzakeen esperientzia edo zirkunstantzia multzo bati egiten dio erreferentzia, non ondorioak denbora asko irauten duten eta bizi-kalitateari larriki eragiten dion (Soto-Lagos & Rubí-González, 2021).

Kontzeptu honen barruan egoera anitz sartzen joan da. Esan nahi da adieraren eremua egoera ezberdinak barnebiltzen joan dela denboraren joanean. Felitti-k 1998-an kontzeptua bataiatu zuenetik beste zientzialariek aberasten joan dira. Horren paradigma, Felittik familiaz harandi ikusitako adbertsitatea, Cronholm-ek, Finkelhort-ek eta Toth & Cicchetti-k beste autore batzuen artean, giza nahiz ingurumenean topatu izana. (Ikus lehen taula).

Taula 1.

Esperientzia gogor goiztiarren adibideak

Familian	Familia barruko arazoak	Arazo mentalak	
		Genero indarkeria	
		Alkohola, drogak...	
		Atxiloketak	
		Gurasoen banaketa	
	Abusua	Emozionala	
		Fisikoa	
		Sexuala	
	Zabarkeria (abandonua)	Emozionala	
		Fisikoa	
	Gizartean	Pobrezia; etxerik gabe egotea; arrazakeria; sexismoa edo beste edozein bereizketa mota...	
	Ingurumena	Hondamendi naturalak, gerrak, krisi klimatikoak...	

Iturria: Cronholm et al., 2015; Felitti, 1998; Finkelhor et al., 2015; Toth & Cicchetti, 2013.

Halere, esan behar da adbertsitate egoera guztiak ez direla trauma bihurtzen. Felittik 1998ko ikerketa premisa horrekin abiatu zuen. Bere ustez zenbat eta adbertsitate gehiago bizi haurtzaroan, orduan eta arrisku handiago aurreikusten zuen trauma egoerak sortzeko. Hipotesi hau bere ikerketan baieztatu zuen. Van der Kolkek (2017) hau ondo esplikatzen du kasu batekin. Hil ala biziko istripu batean gertatu ziren senar-emazteak tratatu zituen psikiatra estatubatuarrak eta senarra sendatzen zihoan heinean emaztea ez zen traumatik osatzen. Hartaz, emaztearekin osatze prozesua bestelakoa izan zen, haurtzaroan pairatu zituen sexu abusuekin topo egin arte. Hortxe zegoen bien arteko ezberdintasuna, adituaren hitzetan.

Egoera traumatikoa bizi izan duten pertsonak ez dute lortzen gertaera hauetatik modu autonomoan berreskuratzea, hiru pertsonetatik bat bakarrik sendatzen delako modu


naturalean, beste batek patologia garatuko du eta hirugarrena terapiaren bidez sendatuko da (Herzog, 2021), beraz, kasu askotan, laguntza behar izaten dute (Guerra & Barrera, 2017).

Hautzaroen bizitako esperientzia traumatikoek, geroko garapen ebolutiboan zeregin zuzena dute (Soto-Lagos & Rubí-González, 2021) eta bizipen horiek funtsezko faktore bihurtzen dira gero beraien inguruko pertsonen egokitzeko (Hernández & Gras, 2005).

Azaldutako ondorioez gain, hurrengo irudian agertzen diren ondorioak ere aipagarriak dira, esperientzia gogor goiztiarren ondorio modura.

Figura 1.

Esperientzia Gogor Goiztiarren ondorioak




Iturria: Centers for Disease Control and Prevention. (2016). About the CDC-Kaiser ACE Study.

Ondorio horiek jarraikortasunezko modu batean agertzen joan ohi dira prozesu bat jarraituz eta hurrengo irudian azaltzen den bezala, sorreratik heriotzaraino agertzen dira.

Figura 2.

Esperientzia Gogor Goiztiarren ondorioen prozesua



Iturria: Centers for Disease Control and Prevention. (2016). About the CDC-Kaiser ACE Study.

Azaldutakoa kontuan hartuta, hona hemen CDC-Kaiser ACE azterketak aipatutako bizipen ezkor batzuen azalpena.

2.1.1 Familia desegituraketa

Familia desegituraketa, Váldez López de Morales-ek (2005) ondo azaltzen duen bezala, familia hausten denean gertatzen da. Haustura hori fisikoa edota emozionala izan daiteke. Fisikoa baldin bada, ezkontideren bat falta denean gertatuko da, esate baterako; aldiz, emozionala baldin bada, familia-harremanetan komunikazio eta ulermen falta nabarmena dagoelako izango da.

Familia desegituraketa, gurasoen arteko etengabeko gatazken ondorioa izan daiteke ere, non familiaren lehen funtzioak betetzen ez diren, hau da, elikadura nahikorik ez, arropa desegokia, higiena falta, arreta medikorik ez, gainbegiratze falta, osasunerako baldintza

arriskutsuak eta hezkuntza eremua desegokia gertatu daitezkeen (Arruabarrena & De Paul, 1996).

Familia mota horiek euskarri emozional onak bermatzeko oinarriak sortzeko ez dira gauza. Hori horrela, haurrek etenik gabe sortzen duten demandari aurre egiteko aukerarik ez dute sortzen (Tess et al., 2008).

Arazo hori gizartearen parte da, familiarekin batera. Gainera, azken urteotan nabarmen handitu da familiaren desintegrazioa, eta, kasu askotan, hain da naturala non gure bizimoduan aldaketarik eragiten ez duen. Gainera, askotan, arduragabekeria sor dezake gazteengan, eta ondorio handiak sor ditzake; esate baterako, tratu txar fisikoak, aurrerago ikusiko dugun bezala. Izan ere, pertsona batek jasotzen duen lehen zainketa bere etxekoa da, non giza bizikidetzarako balioak transmititzen diren, maitatzen, komunikatzen edota ulertzen ikasiz (Váldez López de Morales, 2005).

Era berean, emozio- eta afektibitate mailan arazo psikologikoak eta funtzionamendu indibidual, familiar eta sozialean eragin diezaike haur horiei, eta horiek eragina izan dezakete haurren errendimendu akademikoan eta autoestimuan (Pino & Herruzo, 2000).

Kasu horietan, haurrak ez du izaten interesik ikasketetan, bere ikasketa-maila motela da eta ikasketa-aldian zailtasun handiak izaten ditu, ez baitu arreta jartzen irakasleak ematen dituen azalpenetan. Beraz, une horretako trauma bere eguneroko bizitzako esparru osoan berarekin izango du (Tess et al., 2008).

Horren aurrean erakundeek irtenbideak garatu beharko lituzkete egoera horrek sortzen dituen ondorioei aurre egiteko, dela delinkuentzia, alkoholismoa edo gazteen drogazaletasuna (Váldez López de Morales, 2005).

Laburbilduz, familien arteko desintegrazioa gizarte-arazo bat da, eta, beraz, gizarteari eragiten dio. Hainbat arrazoiengatik gertatzen da, hala nola, egoera ekonomikoarengatik, mendekotasunengatik, migrazioagatik, gaixotasunengatik, indarkeriarengatik, abandonuagatik, komunikazio faltagatik edo dibortzioengatik. Hartara, familiako kide izatearen zentzua galdu egiten da (Zuazo Olaya, 2014).

Arazo hori gero eta presenteago dago gure testuinguruan. Urrutira joan gabe Gasteizen errealitatean ikus daiteke. Arabako hiriburuan berez erregistratuak dauden %10,5-ak etorkinak dira (Berdonces, 2021). Datu horrek lagun dezake eskola segregazioaren

sorburuetako arrazoi bat esplikatzen. Gasteiz da, hain zuzen ere, Espainiako bigarren hiria eskola segregazio tasarik altuena duena. Ikasle migratzaile guztien artean, % 83-ak eskola publikoetan matrikulatuta daude (Ortega, 2019). Hori dela eta, hamar institutu publikoetatik, hiruk ikasle migratzaileen %84-a biltzen ditu (Berruero, 2022). Familia askok beste herrialde batera emigratzeko beharra izan dute, familia desintegratuz eta umeak izan dira adbertsitatea pairatu dutenak. Lehenik, familiaren desintegrazio fisikoa eta emozionala bere haragitan esperimintatuz (Váldez López de Morales, 2005); eta bigarrenik, jasotako herrialdeak eskolaren bidez baztertu edota segregatu dituelako (Barudy, 2021).

2.1.2 Tratu txarrak

Haur askok haurtzaroan jasaten dituzten tratu txarrak, askotan, helduen alkoholismoaren ondorio izaten dira. Alkoholismoa jokabide-nahaste kronikoa da, behin eta berriz alkohola edateak adierazten duena, eta, azkenean, haurraren osasuna edo funtzio ekonomiko eta sozialak oztopatzen dituena. Hau egiaztatu ahal izan da hainbat ikerketek esker; esate baterako, 2005-ean egindako azterlan batean ikusi zen tratu txarren %57,9-a alkohol-kontsumoagatik gertatu dela (Salcedo & Carvalho, 2005).

Tratu txarrak haur bati bere eskubideak, zainketa edota askatasuna kentzeari deritza eta honek, bere garapen zuzena eragozten du. Familia egoera onean ez dagoen aldiro agertzen dira, eta bi motatakoak izan daitezke. Alde batetik, ikusgarriak direnak daude, bai kolpeen bidez (tratu txar fisikoak) baita sexu-abusuen bitartez ere (abusu sexuareko portaerak). Bestalde, berriz, ikusezinak direnak daude, bai tratu txar psikologikoaren bidez (umea iraindu edo arbuiatzen duten hitzen bidez), bai tratu txar pasiboaren edo zabarkeriaren bidez (haurren arduradunek ez dute ezer egiten sufrimendua saihesteko) (Barudy, 1999).

Tratu txar horiek pairatzen dituzten haurrek zainketen gabezia edo urritasun kronikoa dute eta hau igartzen da dituzten arazo fisikoetan, afektiboetan eta kognitiboetan. Beraz, sistematikoki gaizki elikatuta, gosetuta, zikin eta gaizki jantzita agertzen dira. Haien gurasoek ez dituzte aintzat hartzen eta normalean baztertzen dituzte, gizarte- eta kultura-estimulazio falta izanez eta, beharrezko garapen soziokognitibo egokia ziurtatu gabe. Gainera, haur hauek autoestimu baxua eta gutxiagotasun-sentimendua (tristura, antsietatea, beldurra, irrika, frustrazioa, porrota, lotsa eta segurtasun eza) eta depresio-bizipenak (bere buruaren irudi txarra, eta munduaren ikuspegi mehatxagarria) izaten dituzte. Horregatik, askotan arreta deitzeko beharra sentitzen dute (Barudy, 1999).

Bizipen horiek osasun mentalekin lotuta daude (Barudy, 2021), horregatik, ondorengo ataletan xeheago azalduko ditugu aipatutako tratu txar mota batzuk.

2.1.2.1 Haurren tratu txarrak

Haurren tratu txarra adingabearen garapen normalari kalte egiten dion edozein ekintza edo hutsegitea da (Santana-Tavira et al., 1998).

Honez gain, umeen tratu txar hau fisikoa ere izan daiteke, indarra nahita erabiliz, haurra zaurituz, kaltetuz eta aztarnak ikusgai utziz (Salcedo & Carvalho, 2005).

Egoera horiek dira emakume askok gaur egun buruko gaitzak eta nahaste psikopatologikoak sufritzearen oinarrietako bat. Horrez gain, helduek hurrei egindako abusu hori nahasmendu eta arazo psikiatriko ugariarekin lotu izan da askotan, hala nola, depresioarekin, fobiekin edo izu-nahastearekin (Barudy, 2021).

Kasu askotan ere, haur-indarkeria hau familia-indarkeria bilaka daiteke, hau da, familiako kideen artean gertatzen dena eta ahulenetik ahulenera gauzatzen den tratu txar bezala, gatazkan boterea lortzeko helburuarekin egiten dena.

Gaur egun hainbeste errepikatzen den arazo honek haurrengan hainbat ondorio negatibo dakartza, izan ongizate fisiko eta psikologikoan, baita ondorengo garapen emozional eta sozialean ere. Horrek ere eragin zuzena du nortasunaren garapenean eta munduarekiko eta inguruko pertsonerekiko sortzen den segurtasun eta konfiantza sentimenduan. Erasotzailea familiakoa denean, ume sendi arteko lotura hautsi egiten da (Hernández & Gras, 2005).

Indarkeria modu horretan kateatzearen ondorioz haur horiek jokabide oldarkoragoak, antisozialagoak, inhibitzaileagoak eta beldurgarriagoak aurkeztuko dituzte. Hartuemanetarako gaitasun gutxiagoa, errendimendu akademiko txikiagoa izaten dute eta halaber antsietatea, depresioa eta sintoma traumatikoak ere eduki dituzte, kasu batzuetan baztertuak geldituz (Touza Garma, 2002).

2.1.2.2 Abusu sexuala

Bestalde, abusu sexuala neska-mutil askok egunero jasaten duten beste adbertsitate mota bat izan daiteke. Tratu txar mota honek ondorengo psikologiko nabarmenak sortu ohi ditu, ziklo ebolutiboan zehar iraun dezaketenak eta epe luzean ondorioak eragin ditzaketenak (Beltran, 2010).

Horrek epe luzearako ondorio psikologiko handiak sor ditzake, hala nola, antsietatea, beldurra, autoestimua baxua, hartuemanak garatzeko arazoak (isolamendua eta gizartean interakzio gutxiagoa), depresioa edota lo egiteko arazoak. Hortaz, kasu gehienetan, tratu

txar mota hori jasaten duten pertsonen profesional baten laguntza behar izaten dute, arazo horri eraginkortasunez aurre egiteko (Cantón-Cortés & Rosario Cortés, 2015).

2.1.2.3 Abandonua

Azkenik, abandonuaz hitz egingo dugu. Umeak alde batera uzten direnean, edozein arrazoiengatik, mundua leku arriskutsu bat bezala ikustera eramaten ditu eta kasu askotan esploratzea, arriskuak hartzea edo beste pertsonengan konfiantza izatea oso zaila egiten zaie. Horrez gain, ongizate fisiko eta psikikoarekin bateraezinak diren pentsamenduak, egoera mentalak, emozioak eta jardura immunologikoak izaten hazten dira (Cozolino, 2019).

Haur horiek arretarik gabe gelditzen direnean, helduak pertsona arriskutsuak bezala ikusten dituzte eta horregatik, haiengandik datorren informazio guztiari ez diote kasurik egiten. Hori dela eta, haur hauekin tratatzen denean, haien interesak, iritziak eta beharrak errespetatu behar dira (Cozolino, 2019).

Ondorioz, familian sor daitezkeen indarkeria-egoera horiek, sufrimendua areagotu eta bizi kalitatea oker dezakete. Esperientzia negatibo horiek, gehienak haurtzaroan bizi direnak, gurasoen funtzioa oztopatu dezakete, atxikimendu prozesu desberdinak eta haur guztiek beren garapen egokirako behar duten zaintza eragotziz (Barudy, 1999).

Beraz, familiako kideekin elkarrekintza zuzena beharrezkoa da arreta ona eta babes egokia bermatzeko. Horretarako, elkarrekintza ezinbestekoa izango da (Barudy, 1999).

2.2 Familia eta apegoa (atxikimendua)

2.2.1 Familia

Familia historian zehar modu desberdinetan definitu den kontzeptua da. Váldez López de Morales-ek (2005) familia kontzeptua gure gizarte osoko oinarritzkoa eta unibertsala den gizarte-erakunde gisa definitzen du. Horton eta Chester-ek (1994), ordea, familia, seme-alabak hazteaz eta giza beharrak asetzeaz arduratzen den erakundea dela adierazten dute, bere helburuak lortzeko arau eta prozedura zehatz batzuk dituen.

Bestalde, Ellsberg-ek (1996) pertsonen bizitzaren erdigunean dagoen sare zabal, malgu eta anitz gisa definitzen du familia kontzeptua. Horrez gain, familia egiturak haurren garapen

akademikoan eta sozialean eragin handia duela azaltzen du, gurasoekin hazten diren neska-mutilek arazo emozionalak jasateko aukera gutxiago izan ohi dituztela argitzeaz gain.

Azkenik, Navarretek (2000) gizakien erreferentzia nagusi gisa definitzen du familia, zein neska-mutilen identitatea eta auto ezagutza eratzen duen edo eratzeko tresnak ematen dituen; hau da, familia, haurrentzako eta bizirauteko funtsezkoa den erreferentzia da.

Hori gutxi balitz, gaur egun familia, haurraren sozializazio eragile nagusietakotzat hartzen da. Gainera, familia-mota ezberdinek, hala nola guraso-estiloek eta gurasoen arteko harremanek, eragin handia dute hurrek bere jokabideak eta emozioak auto-erregulatzeko duten gaitasunetan (Hernández & Gras, 2005).

Familia historian zehar aldaketa eta eboluzio gehien jasan dituen sistemetako bat da. Hau faktore historiko, sozial, ekonomiko eta kultural ezberdinen ondorioz gertatzen da. Hauek dira gaur egun ohikoenak direnak (Grupo Olmitos, 2021):

Taula 2.

Familia mota desberdinak

<u>Familia nuklearra:</u>	Gizon eta emakume batek osatzen duen familia da, seme-alabarik izanik edo ez.
<u>Guraso bakarreko familia:</u>	Seme-alaba bateko edo hainbateko familia, guraso bakarrak osatua.
<u>Berreraikitako familia:</u>	Egungo bikoteko kide batek edo batzuek aurreko bikotearen seme-alaba bat dutenean gertatzen da.
<u>Sexu bereko familia:</u>	Genero bereko bikote baten bitartez lortzen da.
<u>Banandutako gurasoen familia:</u>	Gurasoak bananduta egon arren eta elkarrekin bizi gabe gurasoen papera betetzen jarraitzen dutenean gertatzen da.
<u>Pertsona bakarreko familia:</u>	Pertsona bakar batek osatutako familia da.

Iturria: Grupo Olmitos (2021).

2.2.2 Atxikimendua

Apegoa haurra eta zaintzailea espazioan eta denboran batzeko lotura bat da (Gonzalo, 2015), zeinaren funtzioa biziraupena bermatzea den (Cantero & Lafuente, 2010). Horrez gain, haurraren eskolako arrakastarekin lotzen den faktorea da (Geddes, 2010). Haurra jaiotzen denean, bere inguru hurbilak bere beharrak asetu behar ditu, konfiantza izan eta seguru senti dadin.

Hau da, apego-lotura zaintzaile nagusian edo familiako figura nagusian segurtasunaren bilaketaren ezaugarria da, baita haurrak babesa eta segurtasuna behar duenean aktibatzen dena ere, bere biziraupena eta ongizatea bermatzeko asmoz (Gonzalo, 2015).

Hobeto esanda, apego figura, haurraren bizitzan jarraitutasuna eta segurtasuna ematen dituen norbait da, "estres" garaian lasaitzeko gaitasuna duena (Cozolino, 2019).

Bizitzako lehen urteetan garuna garatzen doa, eta lehenengo esperientziak garapen neuronalean eragin neurrigabea duten lehen esperientziak izaten dira (Cozolino, 2019).

Bestalde, sen sozialak amaren eta haurraren arteko loturan eta atxikimenduan du jatorria, eta gure gurasoekin loturak ezartzeko eta gure inguruko beharrak eta asmoak detektatzeko gaitasunari esker irauten dugu. Jaiotzetik hil arte, guztiok behar dugu beste batzuen laguntza seguru sentitzeko eta nor garen ezagutzeko (Cozolino, 2019).

Beraz, apegoaren kalitatea, arretaren kalitatearen eta zaintzaile nagusiaren sentsibilitatearen araberakoa izango da (Gonzalo, 2015).

Lotura hori lehenik eta behin, zaintzaile nagusiarekin izandako milaka esperientzia interaktiboetan oinarrituz eraikitzen da. Geroago berriz, haurrak dituen beste esperientzia batzuek eragina izango dute atxikimendu horretan. Beraz, helduek apegoari buruzko prestakuntza izatea ezinbestekoa izan ohi da (Gonzalo, 2015).

Haurraren eta zaintzailearen arteko lotura, haurra sabelean dagoen bezain laster hasten da ezartzen, haien aldarte guztiak hautemanez. Ondoren, haurra jaiotzean, hain zuzen ere, haurrarekin harreman komunikatiboak hasiko dira eta era berean, amaren sabeletik kanpora ateratzearekin batera, zaintza sistema hasiko da (Gonzalo, 2015).

Hau da, haurrak bere zaintzaileekin dituen interakzio esperientzietatik eratutako harremanek baldintzatuko dute segurtasun sentzazioa (Cantero eta Lafuente, 2010).

Apego mota desberdinak ditugu. Alde batetik, **apego segurua** dugu. Apego mota hau duten neska-mutilek esplorazio-jokabide kompetentea eta aktiboa erakusten dute; hau da, apego figura modu positiboan jasotzen dute hura joan ondoren eta normalean hurbiltasuna, kontaktua eta elkarrekintza bilatzen dute (Gonzalo, 2015).

Horrez gain, besteek lasaitzeko eta hurbiltasunari esker segurtasuna bizitzeko gaitasuna dute, eta ikasgelan, irakasleekin eta beste ikasleekin apego seguruak ikasteko gaitasuna optimizatzen du. Beraz, apego mota honek zirkuitu neuronalen ikaskuntza bultzatzen du eta garunaren hazkuntza eta emozioak erregulatzea eragiten du (Cozolino, 2019).

Haurraren eta zaintzailearen arteko apegoa segurua izan dadin, zaintzaileak babes figura gisa jarraitu behar du, haurra hurbiltasunaren eta babesaren bila joan dadin, arrisku edo alarma-egoeretan bere oinarri segurua izateko. (Gonzalo, 2015).

Bestalde, **ziurgabeko apegoa** dugu. Apego mota hau aurkezten duten umeak, ezin dira kontsolatuak izan eta horregatik negarrez jarraitzen dute haien amek besarkatu arren. Apego mota honen barruan, hiru mota desberdin bereizi daitezke. Lehenik eta behin, **ziurgabeko apego saihestua** daukagu. Haur hauek, nahiko independenteak dira, ez baitute behar amaren oinarri segurua eta haien amarengandik banatzen direnean, ez dute negar egiten ezta itzultzerakoan harreman fisikorik izaten ere. Gainera, amak kontaktua bilatzen badu ere, hurbilketari uko egin dute. Hori iraganean arbuio ugari jasan izanaren ondorioz izan daiteke eta horregatik frustrazioa saihesteko amaren beharra ukatzen saiatzen dira (Oliva Delgado, 2004).

Bigarrenik, **ziurgabeko apego anbibalente** daukagu. Apego hau aurkezten duten haurrek, haien amak joaten direnean oso kezkatuta gelditzen dira eta hori dela eta, esploratzeari uko egiten diote. Itzultzen direnean berriz, haien jarrera guztiz anbibalentea izaten da. Izan ere, ama hauek ez dira oso sentikorak, gutxiago laguntzen dute haien hurrei eta elkarreragin gutxiago sortzen dituzte. Batzuetan gehiegi babesten dituzte euren seme alabak, besteetan aldiz gutxiegi, umeengan pertzepzio anbibalentea areagotuz. Esan nahi da, haur horiek amaren beharra eta babesa behar dutenean oso inseguruak sentitzen dira (Oliva Delgado, 2004).

Azkenik, **ziurgabeko apego desantolatuarekin** topo egiten dugu. Apego mota hau daukaten umeeek segurtasun falta handiena duten haurrak dira. Amarekin elkartzen direnean, haur horiek portaera nahasiak eta kontraesankorrak izaten dituzte. Gehienek oso desorientatuta gelditzen dira eta batzuk negar egiten hasten dira lasai agertu ondoren edo mugimendu estereotipatuak egiten hasten dira (Oliva Delgado, 2004). Normalean tratu txarren kasuetan gertatzen da atxikimendu hau. Hau da, hain zuzen ere zaindu behar duena eta tratu txarrak ematen dituen pertsona bera denean, umea bere gatibu bihurtzen duenean. Batetik, beharra eta bestetik beldurra bateratzen direnean umearengan, ondorioz atxikimendu desantolatua sortuz. Adbertsitate kasuekin gehien kateatzen den atxikimendua dugu. Izan ere, negligentsia kasuetan, abusu kasuetan nahiz familien desegitura kasu gehienetan azaltzen baita.

2.2.3 Apegoa eta eskola

Eskola oso leku garrantzitsua da apego segurua eraikitzeko. Ezinbestekoa da ikasle horietara iristeko gaitasuna izatea. Kontuan izan behar da eskola giza garapenerako eta arrisku jokabideak garatzeko babes faktorea ere izan daitekeela (Varela et al., 2020).

Ikasle bakoitza apego eredu ezberdinekin sartzten da gelara, eta horiek eragina dute irakasleekin eta ikaskideekin konektatzeko gaitasunean. Beraz, diagrama horiek ulertzeaz gain, ikasle baten barne-munduaz informazioa eskaintzen dute; era horretan, irakasleei informazio ugari eskainiz. Honetaz gain, irakasleak dira ikasleen garunak gurasoen mekanismo epigenetiko berberekin modelatzen dituztenak. Ez da ahaztu behar ikasle askok denbora gehiago pasatzen dutela irakasleekin haien gurasoekin baino, beraz, honek, irakasleari aukera gehiago ematen dio haur hauen burmuina moldatzeko (Cozolino, 2019).

Txileko eskola desberdineko 815 ikasleekin egindako ikerketa baten arabera, frogatu izan da eskolarekiko atxikimendu handiagoa hautematen duten ikasleek, jokabide antisozialak murrizten dituztela (Varela et al., 2020).

Horrez gain, aurkitu da haurrak amaren arreta gutxiago izan arren eta horrek antsietatea, autoestimua baxua, ikaskuntzan edo epe laburreko oroimenean gabeziak eragiten dituen arren, bizitzako lehen urteetan gizarte-ingurune positiboak sor ditzakeela, hala nola, irakasleei esker. Hori garunak ingurune aldakorretara egokitzeke izan dezakeen gaitasunari zor zaio (Cozolino, 2019).

Begi bistakoa da eskola-sistemak eta irakasleek, funtsezko eginkizuna dutela. Alde batetik, ikasle ahulei laguntzeko zeregin garrantzitsua dutelako (Geddes, 2010) eta bestalde, umeeiko oinarri segurua eta entzuteko borondatea adierazi eta konfiantza eman dezaketelako (Cozolino, 2019). Beraz, ikerketa horiek eskolak atxikimendua prebenitzeko duen garrantzia adierazi dute (Varela et al., 2020).

Azkenik, azpimarratu beharra dago hurrek ikasgelan ematen duten denborak, irakaslea erreferentziazko heldu bihurtzen duela. Segurtasunik gabeko apego bat duten hurrek, irakaslea eta beste hurrek, nahiz testuingurua mehatxu gisa biziko dituzte. Beraz, irakaslearekin harreman segurua sortzen baldin bada, haurrentzako benetako oinarri seguru bat izango da (Sierra García & Moya Arroyo, 2012).

Irakaslearekin harreman segurua sortzeko eta garatzeko, hainbat gomendio eta jarraibide proposatzen dituzte Bergin eta Berginek (2009). Lehenik eta behin, ikasleekin sentsibilitatea eta interakzio positiboak areagotu behar dira. Hau da, hurren seinaleak detektatu eta interpretatu, leku seguruak sortu eta ikasleak ulertzen jakitea ezinbestekoak dira (Miravalles, 2019).

Bigarrenik, eguneroko dinamikak ondo prestatu eta ikasleengan itxaropen handiak eduki behar dira, ikasleenganako kezka kontuan edukiz eta behar duten guztietan haiei lagunduz. Bestalde, indukzioan oinarritutako diziplina erabili behar da zigorra erabili ordez. Horretarako, arauen arrazioak azaldu behar dira eta arauak haustearen ondorioak adieraztea ezinbestekoa izango da. Honek umeei prosozialki eta emozionalki positiboagoak izateko aukera ematen die (Miravalles, 2019).

Azkenik, ikasleei atseginak eta lagungarriak izaten eta elkar onartzen lagundu behar zaie. Hau ezinbestekoa da haien arteko kooperazioa eraikitzeko. Horretarako, haien artean lagundu, errespetuz tratatu eta esker onekoak izan behar dira.

2.3 Erresilientzia

Erresilientzia kontzeptua gaur egun gero eta gehiago entzuten den hitza da. Psikologiaren alorrean garatu eta soziologiak bereganatu duen kontzeptua da, baina aldi berean ere politika eta hezkuntza zientzietara iritsi dena (Oriol-Bosch, 2012).

Psikologoentzat kontzeptu honek interes handia sortu zuen: hurrek, helduek edo familia batzuek ezbehar handiak gainditzearen zergatia ulertarazi zielako. Horretarako,

autokonfiantza, koordinazioa, autokontrola, lasaitasuna eta konpromisoan irautea ezinbestekoak zirela egiaztatu ahal izan zuten (Oriol-Bosch, 2012).

Gaur egun, mundu guztiak ezagutzen du gainditu ezinezkoa dirudien egoera tragikoak bizi dituen edo bizi izan dituen neska edo mutil bat. Hala ere, errealitateak erakusten digu haietako askok lortzen dutela hori gainditzea, horrela bizitza orekatua eta heldua lortuz, egoera hauetan jarduten duten erresilientzia-faktoreez baliatuta (Piaggio, 2009).

Egin diren ikerlan batzuen arabera, frogatu da gurasoen gehiegizko babesa eta denbora guztian arriskuak saihestea ez dela haurrentzako aproposa, erronkei eta arriskuei aurre egiteak erresilientzia garatzen baitu. Gainera, komunitatearen laguntza ezinbesteko elementua da kasu guztietan (Oriol-Bosch, 2012).

Erresilientzia kontzeptua, alde batetik, izaki bizidunek egoera traumatikoetan, zailtasunei aurre egiteko duten gaitasuna da, esperientzia horien bitartez ikaskuntza berriak garatuz. Hau da, maitasunari esker lortzen den ekoizpen soziala da (Barudy, 2021).

Laburbilduz, erresilientzia material batek presio handia jasan ondoren jatorrizko forma berreskuratzeko duen gaitasuna da (Serisola, 2003).

Lehen mailakoa edo bigarren mailakoa izan daiteke. Lehen mailakoa izatekotan, bizitzako lehen hiru urteetan gutxienez zaintzaile eskudun batekin lotura seguruaren esperientzia luzea eskaintzen du. Bigarren mailakoa baldin bada, berriz, umeengan progresiboki garatzen da eta horietan barne baliabideen agerpena sustatzen da, adopzio-gurasoekin, harrera-gurasoekin, irakasleekin edota hezitzaileekin duten loturari esker (Gonzalo, 2015).

Gure biztanleriaren zati handi batek, gerrak direla eta giza eskubideen ondorioz, bere herrialdetik ihes egin behar izaten du askotan, bizitza osoan zehar markatuta egonik, kasu askotan, familia hauek euren kiderik gabe geratuz eta testuinguru berri batean bizitzen ikasiz. Hori pairatu behar duten familia horietako bakoitzak esperientzia guztiz desberdinak dituzte, baina denek helburu bera dute, hain zuzen ere, bizirik jarraitzea, maiteak babestea eta bizitzeko herrialde berri bat aurkitzea. (Barudy, 2008).

Hori gertatzen denean, gehienbat haurrak dira biktima errugabeak bihurtzen direnak eta estres ugari jasaten dutenez, trauma osteko estresaren sindromea izateko joera handiagoa daukatenak. Egoera horiek bizi izanak isolamendu soziala, insomnia, antsietatea edota elikadura desoreka eragin ditzake, erbestean bizitzera behartzeaz eta ohiko ingurunearekin

haustura eta galera jasateaz gain (Hurtado Martín, 2019). Lehen honen inguruan jardun dugu migrazioa zio ekonomikoengatik gertatzen denean, baina hauei politikoak eransterakoan adbertsitatea bikoiztu egiten da.

Kasu horietan giza identitatea definitzen duen ezaugarrietako bat pertsonen elkar zaintzeko eta elkarri laguntzeko duten gaitasuna da. Beste era batera esanda, asko sufritu arren, bizirik irauteko eta jokabide altruistak sortzeko erresistentzia eta indarra edukitzeko gaitasuna eratzen dute, hau da, pertsona erresilienteak sortuz. Horretarako, haurtzaroan bizitako apego seguru baten esperientzia eta enpatia, ezinbestekoak dira apego osasuntsu bat mantentzeko (Barudy, 2008).

2.4 Gorputz adierazpenaren garrantzia

Historian zehar autore ezberdinek gorputz-adierazpenaren kontzeptua modu askotan definitu izan dute, esate baterako, gizakiak komunikatu behar izan duen bitartekorik zaharrena den bezala, non sentrazio, sentimendu, emozio eta pentsamenduak adierazteko gai izan diren (Verde, 2005).

Barak (1975), gorputz-adierazpena pertsonaren aldarteak agerian uzten dituen eduki gisa definitzen du. Motos-ek (1983), berriz, gizakiak komunikazio-elementu gisa erabiltzen duen teknika multzo bat dela eta hizkuntza mota honek izaera psikikoko eduki bat erakusten duela adierazten du. Amaitzeko, Berge eta Palacios-ek (1979) gure buruari buruzko alderdi sakon eta benetakoak aurkitzeko eta asmatzeko modua ere badela diosku.

Hori kontuan hartuta, kontuan izan behar dugu, halaber, gorputz-lengoaia gure bizitzan agertzen dela mundura heltzen garen unetik, eta orduan kontzienteki eta inkontzienteki jaiotako mota guztietako esamoldeek subjektua bere ingurunearekin harremanetan jartzen duela (Navajas, 2017). Lapierre (1985) gorputz adierazpenaren garrantziaz mintzo da pertsonekin komunikatzeko oinarrizko baliabide gisa; era berean, gorputz-adierazpenak berebiziko garrantzia izan dezake neskek eta mutilek izan ditzaketen trauma desberdinak antzemateko orduan, eta hori gorputz hezkuntzako irakasgairako eduki garrantzitsua da, Castillo Viera & Rebollo González-ek azaltzen duten bezala (2009).

Orain arte ikusi dugunez, trauma prozesu bizia da, pertsonaren hainbat mailatan eragin dezakeena. Hau haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen denean, kaltea askoz handiagoa izan daiteke; hortaz, traumaren ondorioak ezagutzeak lehenago eta hobeto identifikatzea ahalbidetzen digu, eta, beraz, beharrezkoa da haiek ezagutu ahal izatea. Horregatik,

garrantzitsua da jakitea aurrerago zehaztuko ditugun adierazleak orekaren haustura eta oreka osasuntsuaren galera antzemateko balia ditzakegula (Romero, 2019).

Adierazle horiek kanpokoak zein barnekoak izan daitezke eta hainbat motatakoak izan daitezke (Romero, 2019):

- Fisikoak: orbanak, garuneko eremuen kaltea, estresa, garapen sentso-eremuko arazoak, ukimen arazoak...
- Psikosomatikoak: min kronikoak, lo egiteko zailtasunak, elikadura arazoak...
- Emozionalak: errua, lotsa, depresioa, autoestimu baxua, autokontzeptu negatiboa, beldurra, antsietatea, haserrea, oldarkortasuna, emozioak adierazteko eta komunikatzeko zailtasunak...
- Kognitiboak: garapen kognitiboaren atzerapena, arreta eta kontzentrazio arazoak, hizkuntza garatzeko arazoak, ikaskuntza nahastea, eskola-errendimendu eskasa...
- Jokabidezkoak: lasaitzeko, autoerregulatzeko eta bulkadak kontrolatzeko arazoak, jokabide erasokorrak eta suizidak, jokabide zailak, substantzien gehiegikeria...
- Sexualak: jokabide desegokiak, sexu-erasoak, ezagutza desegokiak, sexu fobiak...
- Sozialak: atxikimendu-zailtasuna, konfiantza falta, isolamendu soziala, gogo-aldartea antzemateko zailtasunak...

Horietako batzuk gorputz-adierazpenaren bidez argiago ikus daitezke, hala nola, garapen sentso-motorearen arazoak, koordinazioa, oreka falta, lotsa edota autoestimu baxua (Romero, 2019).

Beraz, adierazle horiei arreta jartzea ezinbestekoa da, trauma bizi duen haur edo nerabearen sufrimendua islatzen baitute eta horrek azkarrago identifikatzen eta modu eraginkorrago batean lantzen lagunduko digulako (Romero, 2019). Eta horietan oinarritu gara hain zuzen aurrerago landuko dugun landa lanean, ikasgelan egin dugun behaketan hain zuzen ere.

3. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia adbertsitatea eskolan nola gertatzen den ikusteko eta ezagutzeko hurbilpen bat egitea da. Horretarako, lehenik eta behin kontzeptuak ondo ulertzeko eta gaiari buruz informazioa eskuratzeko azterketa eta errebisio bibliografikoa egin da marko teorikoaren bidez.

Bigarrenik, kasu azterketa bat burutzea. Horretarako ikastola bateko irakasle guztiei galdetegi bat bidali zaie; ikastola horretako Lehen Hezkuntzako 9 ikasgela desberdinetan behaketa burutu da eta ikastolako gaien aditu batekin eta orientatzailearekin elkarrizketa sakona egin da.

Azkenik, eskolako errealitatea ezaguturik, ikasleekin aurrera eramateko interbentzio berritzailea proposatu da.

4. METODOLOGIA

4.1 Partaideak

Parte hartu duten partaideen artean 3 talde bereiz daitezke, guztiak Gasteizko ikastola batekoak. Alde batetik, Lehen Hezkuntzako 9 klaseetako ikasleak behatu dira 1., 3., 4., eta 6. mailakoak, denetara 219 ikasle. Horretarako, behaketa taula bat bete da. Anonimatua mantentzearren, izenak kodetu dira. Horretarako, I letra eta ausazko beste letra bat erabiliko da ikasle bakoitzerako.

Bestalde, 60 irakasleei galdetegia banatu da eta %23,33-ak erantzun du.

Azkenik, ikastolako aholkulariarekin eta gaien aditu batekin elkarrizketa sakona eduki da, bildu diren datu guztiak berarekin partekatzeko eta ikusitakoaren zergatia bilatzeko.

4.2 Informazioa lortzeko erabilitako tresnak

A. Behaketa.

Lehenik eta behin, behaketa taula bat prestatu da (ikus [eranskinak I](#)), bi asteetan zehar gorputz hezkuntzako klaseetan 9 ikasgelako ikasleak behatu ahal izateko. Horretarako, taula bat prestatu da haien jarrerak, interesak, komunikatzeko modua, harremantzeko era eta emozioak kudeatzeko modua behatzeko.

B. Galdetegia. Irakasleak erantzun dutena.

Galdetegia egin ahal izateko, lehenik eta behin, ikastolako zuzendariarekin hitz egin da egin nahi zenaren inguruan jakinarazteko eta bere baimena lortzeko. Behin baimena izanda,

galdetegia egin da Google Forms plataformaren bidez (ikus [eranskinak II](#)) eta ikastolako ikasketa buruari bidali zaio, berak ikastolako klaustro osoari bidaltzeko helburuarekin.

Galdetegia egiteko hilabete bateko epea izan dute eta ikastolako irakasle guztietatik %23,33-ak erantzun dute, bai Haur Hezkuntzakoak baita Lehen Hezkuntzakoak ere. Galdetegia, 15 galderaz osatuta dago, horietatik 4 galdera irekiak izanik. Laburbilduz, lehenik eta behin, irakasle horiek zenbateko garrantzia ematen dioten ikasleen egoerak ezagutzeari, zein baliabide erabiltzen duten informazioa eskuratzeko, eta azkenik, ikasleekin eta haien familiekin duten harremana zein den jakin nahi izan da.

Bigarrenik, traumen inguruan duten ezagutza jakin nahi izan da, haientzat gai honek zenbateko garrantzia duen eta ea noizbait gai honi buruzko formakuntzaren bat izan duten galdetuz.

Azkenik, haien esperientziak antzeman nahi izan dira, egoera zail bat bizi izan duen edo bizitzen ari den ikasleren bat izan duten jakiteko, eta zer egin duten eta zer egin beharko zen ikusteko.

C. Elkarrizketa.

Galdetegiaren eta behaketaren emaitzak zehazteko helburuarekin, ikastolako aditu batekin eta aholkulariarekin elkarrizketa sakona eduki da. Honen helburua galdetegiaren erantzunak haiekin partekatzea haien ikuspuntuak jakiteko, eta behaketaren emaitzak haiei azaltzea kasu bakoitzaren atzetik zer dagoen jakiteko eta errealitatearekin kontrastatzeko da.

Horretarako, aurretik prestatutako galdetegi bat erabili da (ikus [eranskinak III](#)).

D. Datuen analisia.

Galdetegia analizatzeko Excel erabili dugu emaitzak kuantifikatu ahal izateko. Aldiz behaketa eta elkarrizketa sakona egiteko, sistema kategoriala eraiki dugu ideia nagusiak begi bistan jartzeko eta hauekin lan egiteko.

5. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

A. Behaketan ikusitakoa

Behaketa lanak bi aste iraun du eta denbora horretan, 9 klase desberdinetako ikasle guztiak behatu dira. Horretarako, lehen atxikitutako taula abiapuntutzat erabili da haien jarrerak, interesak, komunikatzeko modua, harremantzeko era eta emozioak kudeatzeko modua aztertzeke.

Emaitzetan ikusi da ikasle batzuen jarrerak eta lan egiteko moduak era sistematikoan arreta deitzen duela. Guztira, 15 ikasle izan dira modu batera edo bestera gure arreta deitu dutenak. Horiek azalduko ditugu segidan.

Alde batetik, IL, IH, IN eta IJ, klaseko liderrak izateko beharra sentitzen dute. Hori lortzeko, IL-k bere ikaskideekin gatazka anitz izan ditu azken boladan eta arauak betetzeko arazoak eta zailtasunak erakutsi ditu. Gainera, gorputz hezkuntzako saioetan azken boladan oso urduri egon da eta berarekin hitz egin ondoren, azkeneko asteetan ezin duela ondo lo egin azaldu digu. Ez daki bere emozioak modu egoki batean kudeatzen eta hori dela eta, arreta mantentzeko arazo larriak dauzka, esate baterako, azalpenak entzuterakoan. Bere ikaskideek bere jarrera ikustean, egunero horrela dagoela esaten digute eta tutoreak egunero errieta botatzen diola azaldu digute baita ere.

IH, IJ eta IN-ren kasuan berriz, hauek ere klaseko liderrak izateko beharra erakusten dute, baina beste modu batera. Hauek bakarrik gustatzen zaiena egiten dute. Emozioak kudeatzeko zailtasunak dituzte eta bai ikasleekiko baita irakasleekiko errespetu faltak edukitzen dituzte ere. Gauzak onartzea kostatzen zaienez, maiz haserretzen dira.

Bigarrenik, IU, IM, IO, IZ, IY eta IEk egunero gatazkek izan ohi dituzte, errespetu faltengatik eta nahi dutena egiten dutelako. IM, IE, IO eta IU, egunero gorputz hezkuntzako saioetan nahi dutena egiten aritzen dira. Egin behar dutena ez bazaie gustatzen, besteei molestatzeko egoten dira eta nahi dutena egiten pasatzen dute ordu guztia. Beraiekin egunero hitz egin arren, ez dute haien jarrera aldatzen eta honek, klasea ezegonkortzea eragiten du, ikaskideak haiekin ez egotea sustatzeaz gain. Gainera IU, denbora guztian joka egoten da eta askotan gauzak asmatzen ditu besteei errieta botatzeko.

IZ eta IY-ren kasuan berriz, ez dute inoiz ezer onartzen eta gauzak ez onartzeagatik gezurretan ibiltzen dira egunero. Honetaz gain, errespetu falta handiak dituzte ikasleekiko baita nirekiko ere eta emozioak kudeatzeko zailtasun handiak dituzte. Gainera, besteekin harremantzeko era oso desberdina dute eta oso momentu gutxietan irribarrez edo pozik daude.

Bestalde, IR, ID eta IOk harremantzeko zailtasun handiak dituzte eta momentu gehienetan bakarrik egoten dira. IR eta ID-ren kasuan, gorputz hezkuntzako saioetan inork ez du haiekin egon nahi, haiek ez dira ausartzen besteengana hurbiltzera eta talde batean sartu behar direnean besteek kezaka aritzen dira. IR-en kasuan ez da taldean eroso sentitzen eta ID-ren kasuan berriz, arreta mantentzeko arazo asko ditu.

IO-ren kasuan berriz, binaka edo taldeka jarri behar direnean norbaitengana joan arren, bere ikaskideak berarekin ez dira asko harremantzen. Gainera, azken boladan gorputz hezkuntzako saioetara berandu iristen ari da, eta oso nekatuta dagoela esan digu ezer egin gabe geratzeko asmoz.

Azkenik, IA eta II dauzkagu. IAk, gorputz hezkuntzako saioetan, arreta mantentzeko eta besteak ulertzeko zailtasun handiak ditu. Berarekin hitz egiten saiatzen zarenean, ez zaitu askotan erantzuten eta oso urduri jartzen da. Zerbait egin behar dutenean oso galduta ibiltzen da eta egin beharrekoa beste modu batera egiten du. Besteok hau ikustean, laguntzeko prest daude eta beti berarekin joaten dira zerbait ulertzen ez duenean.

II-k berriz, besteen arreta bereganatzeko beharra izaten du eta zerbait gertatzen zaionean, irakaslearen atentzioa behar du. Bestalde, azken boladan oso triste etorri da gorputz hezkuntzako saioetara, bere ikaskide batzuk berarekin sartzen direla esanez. Bere ikaskideak berriz, berarekin normal dihardute eta lagun asko dute.

B. Galdetegian ateratako informazioa.

Grafikoa 1.

Ikasleen egoera sozial, ekonomiko eta emozionalaren garrantzia



Irakasleek haien ikasleen egoera sozial, ekonomikoa eta emozionalari garrantzia ematen dioten galdetzerakoan, denek baietz erantzun dute.

Grafikoa 2.

Informazioa eskuratzeko erabiltzen duten iturria




Zein iturri erabiltzen duten aurreko informazioa eskuratzeko galderari erantzuterakoan berriz, erantzun anitz egon dira. Galdetegia erantzun duten %28,6-ak familia erabiltzen dute iturri gisa. Beste %21,4-ek berriz, ikasleak erabiltzen dituzte informazioa eskuratzeko.

Gainerakoek, beste irakasleak, kanpoko espezialistak edota eskolako dokumentazioa erabiltzen dute.

Grafikoa 3.


Ikasleekin eta ikasleen familiekin duten harremani ematen dieten garrantzia



Ikasleekin eta haien familiekin duten harremanaren garrantziaz galdetzean, %92,9-ak garrantzia handia ematen die. Gainerako %7,1-ak berriz, haiekiko harremanak garrantzi ertaina daukela erantzun dute.

Grafikoa 4.


Traumen inguruan duten ezagutza



Traumen inguruko galdeteretan murgilduz, traumen inguruan duten ezagutzari dagokionez, %42,9-ak esan dute traumen inguruko ezagutza nahikoa dutela. %57,1-ak berriz, haien ezagutza oso urria dela esan dute.

Grafikoa 5.

Traumen inguruko formakuntza




Horietatik %85,7-ak ez du traumen inguruko formakuntzarik izan, beraz, %14,3-ak bakarrik izan du noizbait formakuntzaren bat gai honi buruz.

Baietz erantzun dutenak, azaldu dute formakuntza horiek alde batetik, sexu abusuen ingurukoak izan direla, bere garaian hezkuntza departamenduak antolatutakoa; bestalde, terapia familiarrari buruz izan zen, Barudyren formakuntza bat hain zuzen ere.

Grafikoa 6 eta 7.


Traumen inguruko formakuntza bat izateak daukan garrantzia irakasle batentzako eta egoera zail bat bizi duen edo bizitzen ari den ikasleren bat izan duten edo ez



Guztientzako garrantzitsua da gai honi buruzko formakuntzaren bat izatea, galdetegia erantzun duten %85,7-ak noizbait egoera zail bat bizi duen edo bizitzen ari den ikasleren bat eduki dutelako.

Grafikoa 8.

Ikasleak bizi izan duten edo bizitzen ari diren egoeren adibideak



Trauma horien artean errepikatuena gurasoen banaketagatik izan da %85,7rekin; ondoren, abusu fisikoa, familiar genero indarkeria eta abandonu emozionala agertzen dira %50-ek bizi izan dutelako. %35,7rekin abandonu fisikoa, familiar arazo mentalak eta abusu emozionala dauzkagulako. Azkenik, gutxien errepikatu direnak %28,6rekin familiar alkohola eta drogak, %21,4rekin familiar atxiloketak eta azkenik, %7,1ekin abusu sexuala izan dira.

Zer egin zuten eta bizitako esperientzietako galdera irekietan murgilduz, erantzun desberdinak topatu dira:

- Protokolo ezberdinak jarraitu. Abusu fisikoaren kasuan, gizarte zerbitzuei abisua pasa eta Osasun Zentrora eraman. Gurasoen banaketaren kasuan, egunez egun umearekin egon eta hitz egin, egoera berrira moldatzen eta eskola espazio seguru bezala sentitzen lagundu.
- Zuzendaritza taldekoei komentatu.
- Gizarte zerbitzuak egoeraren inguruan bazekiela ziurtatu.
- Ikasleekin hitz egin naturaltasunez, beraien sentimenduak ulertuz eta ahalik eta laguntza pertsonala gehiago eskainiz.
- Familien banaketan erdian mantentzen saiatu, baina gurasoak haien artean ez direnean batere ondo eramaten zaila da. Honen inguruan inolako formakuntzarik izan gabe, ahal den bezala, umeari goxotasuna eta lasaitasuna transmititzen saiatu.
- Familiarekin, inguruko jendearekin, zerbitzu sozialekin eta zuzendaritza taldearekin kontaktuan jarri.
- Zerbitzu sozialei abisatu eta martxan jarri, irakasleei pautak eman eta umeei lagundu.
- Eskolako aholkulariarekin harremanetan jarri.

- Ikasleei maitasunez tratatu eta plano emozional batetik hurbildu.
- Irakasle guztien arteko koordinazioa izan eta ikasturte hasieran ikasle horrekin esku-hartze bat egin irakasle guztion artean. Gehienetan tutoreak eta aholkulariak gidatzen dute bilera eta ikasle hauek laguntzeko ezarritako pautak aipatzen dira. Hainbat kasu suertatu direnean behaketa zuzenak eta eguneko erregistroak egin, erabaki zehatzagoak hartu ahal izateko. Helburua beti ere ikaslea babestu eta horrelako egoerak bideratzeko baliabideak ematen saiatu.
- Familiak informazioa pasatu erabaki dutena azalduz.
- Elkarrikeria ezberdinak izan.

Grafikoa 9.

Egoera honi aurre egiteko ea baliabide nahikorik izan dituzte



Kasu eta egoera horiei aurre egiterakoan, %71,4-ak baliabide nahikorik izan ez zutela esan du; hau da, batzuk ezin izan dute egin edo aurrera eraman nahi edo behar zena.


Hori dela eta, kasu hauetan benetan zer egin beharko litzatekeen galdetzean, erantzun anitz jaso egin dira:

- Gu informatuta egon, haurrekin eman behar diren pausoak jakiteko.
- Ikaslea inguratzen dugun guztien arteko koordinaketa egoki bat eduki.
- Irakasleak formazio sakon bat eduki, batez ere emozioen inguruan lan egiteko; hain zuzen ere doluarekin. Normalean lantzen ez den gaia da, beraz zerbait gertatzen denean ezin da jakin nola jokatu, zer egin, zer esan...
- Irakasleentzako formazio gehiago eduki.
- Arlo guztietatik jorratu.
- Behar den pribatutasunarekin jokatu irakasle guztiek jakinaren gainean egoteko, eta aholkuak eman ikasleekin nola jokatu behar den jakiteko.
- Protokoloa lehenik eta behin martxan jarri.
- Formakuntza gehiago jasotzea gaiaren inguruan.

- Egoera horiek bizi dituzten ikasleen egoera emozionalari eta atzerapen akademikoari erantzuna emateko baliabideak eduki.
- Familiarekin elkartu eta ahalik eta modu hobereanean ikasle horiek dituzten beharrak eta egiten ari zaienaren eraginak azaldu.
- Harreman handiagoa eta jarraituagoa izan zerbitzu sozialekin.
- Maitasunez eta emozioz ikasleari hurbildu.

Grafikoa 10 eta 11.

Haien ikasleen egoerak ezagutzeak daukan garrantzia eta zein mailetan ezagutzen dituzten



Azkenik, laginaren %100-entzako garrantzitsua da ikasleen egoerak ezagutzea, baina haietatik bakarrik %21,4-ak oso ondo ezagutzen ditu haien ikasleen egoerak eta konpontzen saiatzen dira. %14,3-ak berriz ondo ezagutzen ditu baina ez da arazo horietan sartzen, eta amaitzeko %64,3-ak gainetik ezagutzen ditu haien ikasleen egoerak.

C. Elkarrizketaren bidez lortutako informazioa.

Elkarrizketa aurrera eraman ahal izateko, ikastolako aditu batekin eta aholkulariarekin hitz egin dugu. Horretarako, elkarrizketa bi zatitan banandu da. Lehenik eta behin, galdetegian lortutako emaitzak haiekin partekatu dira haien ikuspuntua, esperientziak eta jakintzak komunean jartzeko helburuarekin. Eta bigarrenik, behaketan zehar ikusitakoa, hausnartutakoa eta lortutakoa haiei azaldu zaie, horren atzean zerbait dagoen ala ez jakiteko.

Galdetegian lortutako emaitzetan zentratuz, lehenik eta behin, ikastolako klaustro guztia galdetegia bidali izana baina bakarrik 14 pertsonen erantzun dutela azaldu zaie. Honen inguruan esan dute bi arrazoiengatik izan daitekeela hau. Alde batetik, traumaren gaia oso berria denez ez dakitela honen inguruan eta hori dela eta, paso egin dutela; edota beste

alde batetik, mezu asko dauzkatenez eta denbora gutxi eskaintzen diotenez mezuak irakurtzeko, agian ez dutela ikusi edo denborarik izan.

Ondoren, galdetegia erantzun duten guztientzako, traumen inguruko gaia oso garrantzitsua dela adierazten dute, baina haietatik 2-k bakarrik traumen inguruko formakuntzaren bat jaso du, bata sexu abusuen ingurukoena eta bestea terapia familiarrari buruzkoa. Adituen esanetan hezkuntzan ez da traumen inguruko formakuntzarik ematen, bakarrik aholkularientzako edo adituentzako. Hori dela eta, irakasle gehienak ez dute inoiz gai honi buruzko formakuntzarik izan eta ez badute haiek informazioa bilatzen, ez daukate informaziorik haien esku egoera adbertsoak kudeatu ahal izateko.

Protokolo ezberdinak jarraitu dituztela, zuzendaritzako taldeei komentatu dietela, ikaslearekin hitz egin dutela, familiarekin, inguruko jendearekin, zerbitzu sozialekin eta zuzendaritza taldearekin kontaktuan jarri direla eta eskolako aholkulariarekin harremanetan jarri direla adierazi dute galdetutako irakasleek. Adituen ustez detektatzeko eta abisua emateko ondo egin dute, baina irakasle gehienek formakuntzarik ez dutenez, detektatu eta gero nola erantzun ez jakitea normala da, ez daukatelako baliabiderik ezta jakintzarik ere. Horren ondorioz ikasleak egoera adbertsoetan egokitzapenak edo behar bereziak behar baditu ere, batzuetan ez zaio ematen jakintza faltagatik.

Galdetegiaren zatiarekin amaitzeko, irakasle guztientzako haien ikasleen egoerak ezagutzea oso garrantzitsua da, baina bakarrik %21,4-ak oso ondo ezagutzen ditu haien ikasleen egoerak eta konpontzen saiatzen da. Adituen hitzetan ikasleen etxean legoke askotan arazoa, ikasleen egoerari buruz ezer ez esatera behartzen dituztelako haurrak; hori dela eta, kasu batzuetan lotsagatik izaten den arren, gehienetan ez dietelako kontatzen uzten izaten da. Horregatik, lagundu nahi den arren, irakasleek batzuetan ez dakite ikasleen egoera etxean zein den ezta nola lagundu ere.

Elkarrizketaren bigarren zatian murgilduz, egindako behaketan ateratako informazioa haiekin partekatu da.

IL, IH, IM, IO, IZ, IN eta IE-ren kasuan adituek diote ez dutela esperientzia gogor goiztiarrak izan ezta inolako arazorik ere. Hala eta guztiz ere, IH-ren kasuan behin baino gehiagotan umea amak gaizki tratatzen ikusi izan dute.

IA berriz, orain dela urte gutxi etorri da Gasteizera eta familia gehiena Brasilen dauka. Honetaz gain, etxeko ume txikiena denez, oso umetxo tratatu dute beti, baina aldi berean ez diote behar duen arreta guztia eman.

IU-ren amaren kasuan, arazo psikologiko asko ditu; hori dela eta, umea pisu tutelatu batean dago.

ID-k eta IO-k, desgaitasun intelektuala dute. ID-ren kasuan, hasieran bere gurasoek arazoa onartzen ez zutenez, behar zuen laguntza berandu jaso zuen. IO-ren kasuan berriz, aita etxetik joan da eta ez dakite ezer berari buruz. Gainera, amaren bikote berriak umearekin borroka batzuk izan dituela jakin dute umeak aurpegian ekarritako marka txiki batzuen bidez.

II-ren eta IJ-ren etxean genero indarkeria egon da. Gainera, IJ psikologora eta eguneko zentro batera joaten da.

IM, etxeko anai ertaina da eta bere anai handia dagoen ikastolara sartu gabe gelditu denez, ez du nahi ikastola honetan egon. Ondorioz, motibazio falta ikaragarria erakusten du.

Azkenik, IR-k atzerapen kognitiboa dauka eta txikitan hipoakusia detektatu zioten. Hori dela eta, harremantzeko arazoak ditu.

Kasu hauek azaldu ostean beste kasuren bat zegoen galdetu dugu. Lehen inpresio batean iruditu ez arren, IQ-k esperientzia oso gogorak bizi izan dituela adierazi dute. Kasu hau guk ez dugu antzeman. Gaitasun handiko umea da eta oso txikia zenean bere amak bere buruaz gain egin zuen. Uste dute trauma gainditu duela. Duen gaitasun handia medio, berarekin bi hilabete eta erdi egonda ere ez da ezer antzematen.

6. ONDORIOAK

Hasieran zehaztutako hiru helburuak bete dira. Lehenik eta behin, adbertsitatea eskolan nola gertatzen den ikusi eta ezagutu da hurbilpen bat eginez. Horretarako, kontzeptuak ondo ulertzeko eta gaiari buruz informazioa eskuratzeko azterketa eta ikerketa bibliografikoa egin da. Bigarrenik, kasu azterketa bat garatu da. Gauzak horrela, lehenik ikastola bateko 60 irakasleei galdetegia bidali zaie; ikastola horretako Lehen Hezkuntzako 9 ikasgela, 219 ikasle behatu dira eta azkenik, ikastolako orientatzailearekin eta trauman aditua eta ikastolan lan egiten duen aditu batekin elkarrizketa sakona izan dugu. Hirugarrenik, eskolako errealitatea jakinda, ikasleekin aurrera eramateko interbentzio berritzailea izan daitekeen protokolo bat burutu da.

Traumen (SAMHSA, 2014) inguruan zenbateko informazioa eta kezka duen irakasleriak galdetu denean %23,33-ek soilik erantzun du. Honen zioaz adituei itauntzerakoan, traumaren gaia oso berria izanik, ezjakintasuna aipatu dute. Hala ere, galdetegia erantzun duten guztiei traumen inguruko formakuntza izatea garrantzitsua iruditzen zaie. Are gehiago, %85,7-ak noizbait egoera zail bat bizi duen edo bizitzen ari den ikasleren bat eduki du.

Bestalde, %92,9-entzako oso garrantzitsua den arren haien ikasleekin eta haien familiekin duten harremana, errealitatean haietatik bakarrik %21,4-ak oso ondo ezagutzen ditu haien ikasleen egoerak eta konpontzen saiatzen da. Adituaren eta orientatzailearen ustez, honen arrazoietakoa bat familia askok haien egoerak ezkututzen dituztela da.

Familiek adbertsitatea (Felitti et al, 1998) isiltzearen arrazoia desegituraketan legoke (Váldez López de Morales, 2005). Horrela, eskolan egin den behaketan 8 ikaslek esperientzia gogor goiztiarren bat bizi duela edo bizitzen ari direla ikusi da. Honekin esan nahi da familia horietan haustura fisiko edo emozionala gertatu dela eta ez dutela aski euskarri emozional onik ahalbidetzen umeen heziketan (Váldez López de Morales, 2005). Ondorioz, ikasleek gelan etenik gabe atentzioa deitzen, eta gatazkak sortzen dituzte. Hau da, ez dakite autoerregulatzen eta harreman osasuntsuak izaten (Soto-Lagos & Rubí-González, 2021).

Adierazleak harremanetan hausturak, liderra izateko nahia, gatazkak izateko beharra, gauzak ez onartzea, arreta mantentzeko eta besteak ulertzeko zailtasunak izatea, eta besteen arreta bereganatzeko beharra izan dira (Romero, 2019). Aipatzekoa da horietatik %53,33-ak adbertsitate bat dutela, baina gainerako %46,66-ek ez. Hori dela eta, ikertu beharreko egoera bat da. Horrek esan nahi du egoera adbertsoa dugula gelan eta denik eta

azkarren detektatu behar dugula. Horietarik erdiak eskolan antzemanak daude eta bideratuak, baina beste erdiak jarrera disruptiboak ditu, baina ez du adbertsitate ezagunik. Hor beste iker lerro bat sortzen da. Galdera da adbertsiterik ez badute izan zergatik dute eskolan jarrera disruptiboa?

Inportantea da esatea 219 ikasle behatu direla eta horietatik %32,85 jarrera gatazkatsuak erakutsi dituela eskolan. Adituekin kopurua aztertu denean ikusi da ordea, benetan trauma zentzuak edota etxean adbertsitatea bizi duena %17,52a dela. Inklusio trauma egoerarik zailenetakoa behaketan ez da antzeman. Horrek esan nahi du trauma egoerak antzematea eta zehaztea ez dela batere erraza eta adituen esku geratzen dela. Irakaslearen lana detektatzea izanik.

Azkenik, galdetegia erantzun duten irakasle guztien artean %42,9-ak traumen inguruko ezagutza nahikorik dutela eta %57,1-ek berriz haien ezagutza oso eskasa dela erantzun dute. Gainera, haietatik bik bakarrik traumen inguruko formakuntzaren bat jaso dute inoiz eta hori dela eta, egoera hauei aurre egiteko %71,4-ek ez du izan baliabide nahikorik.

Eskolako adituak eta orientatzaileak azaldu dute hezkuntza arloan ez dela traumen inguruko formakuntzarik jasotzen eta hori dela eta, normala dela irakasle gehienek ez edukitzea gai honi buruzko informazio nahikorik.

Cozolinoren arabera (2019), ordea, irakasleak dira ikasleen garunak modelatzen dituztenak, baita haiekin denbora gehien pasatzen duten pertsonak ere. Hori horrela izanik, irakasleek apego segurua eraikitzeko, jokabide onak garatzeko (Varela et al., 2020) eta ikasle ahulei laguntzeko ezinbestekoak dira (Geddes, 2010), irakasleak erreferentziazko heldu bat bihurtuz (Sierra García & Moya Arroyo, 2012).

Laburbilduz, errealitatea ez dator bat adituek azaltzen dutenarekin. Irakasleek ezin dute eskaini ezinbestekoa eta beharrezkoa izango litzatekeen laguntza guztia adbertsitatea eskolan azaltzen dutenekin. Halere, ezezagun eta basamortu bilakatzen den gai honetan badira premisa batzuk irakasleak bete ditzakeenak eta lan honetan garatu direnak. Lehenik adbertsitatea haurtzaroan bizi izan duten ikasleak zeintzuk diren detektatzea, bigarrenik bakoitzaren adbertsitate espezifikoa zehaztea eta azkenik, zerbitzu sozial, eskolako orientatzaile eta tutoreekin nahiz familiarekin lan koordinatua martxan jartzea.

7. PROTOKOLOA MARTXAN JARRI

Errealitatea zein den ikusi ondoren, diseinatutako protokoloa martxan jarriko da. Horretarako, hurrengo pausuak jarraitzea ezinbestekoa izango da. Lehenik eta behin, tutorearekin hitz egingo da. Elkarrizketa horretan ikasle guztien egoerak zehatz mehatz jakin nahi izango dira, bakoitzari buruz gehiago jakiteko eta modu honetan lagundu behar izatekotan bere errealitatearen berri izateko.

Behin ikasle guztiei buruz hitz eginda, behaketa aurrera eramango da, irakasleei galdetzeaz gain, ikertzea ezinbestekoa delako. Behaketa modu egoki batean aurrera eramateko, behaketa taula bat prestatuko da, ikasleen jarrerak, interesak, komunikatzeko modua, harremantzeko era edota emozioak kudeatzeko modua besteak beste behatzeko. Modu honetan, tutoreak ikasle bakoitzari buruz esandakoa kontuan edukiko da eta bizi duten edo bizitzen ari diren egoerak direla eta, zer nolako jarrera duten ikusi eta behatuko da. Interesgarria da lan hau Gorputz Hezkuntzako klaseetan egitea izan ere, Romerok (2019) ondo laburbiltzen duen bezala, gorputz hezkuntzaren jardunaren bidez adierazle fisikoak, psikosomatikoak, emozionalak, kognitiboak, jokabidezkoak, sexualak nahiz sozialak antzemango ditugu.

Behaketa hainbat asteetan egin ostean, jasotako informazio guztia bilduko da eta aholkulariarekin partekatuko da gure arreta deitu duten ikasleen datuak eta emaitzak komunean jartzeko. Modu honetan, ikasle horiekin zer egin behar den adostuko da eta beste irakasleei jakinaraziko zaie guztiek modu berean jokatu dezaten. Behar izatekotan ere familiarekin elkarrizketa bat edukiko da, protokoloa berarekin partekatzeko eta guztiok ibilbide berbera jarraitzeko.

Horretarako, ezinbestekoa izango da ikasleekin egotea, adeitasunez entzutea, ondo tratatzea eta behar duten guztietan laguntzea. Gainera azaldu dugun bezala, ikasle horien inguru guztia elkarlanean aritzea ezinbestekoa izango da guztien artean ahalik eta gehien laguntzeko egoera adbertsoa baikorra bilakatzen.

8. BIBLIOGRAFIA

- 157/2022 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntza eta antolamendua ezartzen dituen (2022). *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 52, 2022ko martxoaren 2koa. <https://boe.es/boe/dias/2022/03/02/pdfs/BOE-A-2022-3296.pdf>
- Arruabarrena, M. I., & De Paul, J. (1996). *Maltrato a los niños en la familia: evaluación y tratamiento*. <https://acortar.link/2DlvCc>
- Bara, A. (1975). *La expresión por el cuerpo*. Búsqueda.
- Barudy, J. (1999). *Maltrato infantil*. <https://acortar.link/J0NbMC>
- Barudy, J. (2008). *Hijas e hijos de madres resilientes*. (3ª ed). Gedisa.
- Barudy, J. (2021eko urriaren 10a). *La familia nuclear es un factor que facilita el maltrato*. Buenos tratos. Apego, trauma, desarrollo, resiliencia. <http://www.buenostratos.com>
- Beltran, N. P. (2010). Consecuencias psicológicas a largo plazo del abuso sexual infantil. *Papeles del psicólogo*, 31(2), 191-201. <https://www.redalyc.org/pdf/778/77813509005.pdf>
- Berdonces, J. C. (2021eko urtarrilaren 5a). El número de extranjeros en Vitoria crece en 44 y ya hay 140 nacionalidades. *El Correo*. <https://www.elcorreo.com/alava/araba/numero-extranjeros-vitoria-20210105215659-nt.html>
- Berge, Y., & Palacios, M. (1979). *Vivir tu cuerpo: para una pedagogía del movimiento*. Narcea.
- Bergin, C., & Bergin, D. (2009). Attachment in the classroom. *Educational psychology review*, 21(2), 141-170. <https://link.springer.com/article/10.1007/s10648-009-9104-0>
- Berruero, M. (2022ko martxoaren 23an). Vitoria a la cabeza de la segregación escolar con tres de sus diez institutos públicos con un 84% de migrantes. *NIUS*.

https://www.niusdiario.es/espana/euskadi/vitoria-encabeza-ranking-segregacion-escolar-tres-institutos-migrantes-estudio-steilas_18_3302520783.html

Cantero, M. J., & Lafuente, M. J. (2010). *Vinculaciones afectivas. Apego, amistad y amor*. Piramide.

Cantón-Cortés, D., & Rosario Cortés, M (2015). Consecuencias del abuso sexual infantil: una revisión de las variables intervinientes. *Anales de psicología*, 31(2), 607-614. https://scielo.isciii.es/pdf/ap/v31n2/psicologia_evolutiva9.pdf

Castillo Viera, E., & Rebollo González, J. A. (2009). Expresión y comunicación corporal en Educación Física. *Wanceulen E.F. digital*, (5), 105-122. <http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/3317/b15549859.pdf?sequence=1>

Centers for Disease Control and Prevention. (2016). *About the CDC-Kaiser ACE Study*. https://www.cdc.gov/violenceprevention/aces/about.html?CDC_AA_refVal=https

Cozolino, L. (2019). *La enseñanza basada en el apego*. Desclée De Brouwer.

Cronholm, P. F., Forke, C. M., Wade, R., Bair-Merritt, M. H., Davis, M., Harkins-Schwarz, M., ... & Fein, J. A. (2015). Adverse childhood experiences: Expanding the concept of adversity. *American journal of preventive medicine*, 49(3), 354-361. <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0749379715000501>

Oliva Delgado, A. (2004). Estado actual de la teoría del apego. *Revista de Psiquiatría y Psicología del Niño y del Adolescente*, 4(1), 65-81. <https://acortar.link/Hf15MQ>

Ellsberg et all., (1996). INEC-MINS. *Teoría general de los sistemas*.

Felitti, V. J., Anda, R. F., Nordenberg, D., Williamson, D. F., Spitz, A. M., Edwards, V., & Marks, J. S. (1998). Relationship of childhood abuse and household dysfunction to many of the leading causes of death in adults: The Adverse Childhood Experiences (ACE) Study. *American journal of preventive medicine*, 14(4), 245-258. <https://www.sciencedirect.com/science/article/abs/pii/S0749379798000178>

- Finkelhor, D., Turner, H. A., Shattuck, A., & Hamby, S. L. (2015). Prevalence of childhood exposure to violence, crime, and abuse: Results from the national survey of children's exposure to violence. *JAMA pediatrics*, 169(8), 746-754. <https://jamanetwork.com/journals/jamapediatrics/article-abstract/2344705>
- Geddes, H. (2010). *El apego en el aula: Relación entre las primeras experiencias infantiles, el bienestar emocional y el rendimiento escolar*. <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=GYXgQAYVbQUC&oi=fnd&pg=PA9&dq=apego+infantil&ots=cq74ISyu6O&sig=JbccOEYzBCceTQNyA4P2TqimfS0#v=onepage&q=apego%20infantil&f=false>
- Gonzalo, J. L. (2015). *Vincúlate. Relaciones reparadoras del vínculo en los niños adoptados y acogidos*. Desclée de Brouwer.
- Greenberg, D. M., Baron-Cohen, S., Rosenberg, N., Fonagy, P., & Rentfrow, P. J. (2018). Elevated empathy in adults following childhood trauma. *PLoS One*, 13(10). <https://journals.plos.org/plosone/article?id=10.1371/journal.pone.0203886&fbclid=IwAR0bIXm9Pi65fVStGsPpepiWfoULbYHaUnNfDma5Jp0r838-QPXxDJerg>
- Grupo Olmitos (2021). *Los 10 tipos de familia más común*. <https://grupoolmitos.com/curiosidades/los-10-tipos-de-familia-mas-comun/>
- Guerra, C., & Barrera, P. (2017). Psicoterapia con víctimas de abuso sexual inspirada en la terapia cognitivo-conductual centrada en el trauma. *Revista de psicología (Santiago)*, 26(2), 16-28. https://scielo.conicyt.cl/scielo.php?pid=S0719-05812017000200016&script=sci_arttext&tlng=en
- Hernández, R. P., & Gras, R. M. L. (2005). Víctimas de violencia familiar: Consecuencias psicológicas en hijos de mujeres maltratadas. *Anales de Psicología/Annals of Psychology*, 21(1), 11-17. <https://revistas.um.es/analesps/article/view/27071/26261>
- Herzog, M. (2021). *Trauma psicológico y su impacto en la vida diaria en la escuela*. <https://www.escueladefamiliasadoptivas.es/wp-content/uploads/2021/03/TraumayEscuela.pdf>
- Horton, P. B., & Chester, L. (1994). *Sociología/por Paul G. Horton y Chester L. Hunt*.

Hurtado Martín, I. (2019). *Huyendo de la guerra: El estrés postraumático en niños y adolescentes* (Bachelor's thesis). <https://repositorio.uam.es/handle/10486/687895>

Lapierre, A. (1985). *El adulto frente al niño de 0 a 3 años*. Científico-Médica.

Martínez, A. C., & Bouquet, R. I. (2007). Tristeza, depresión y estrategias de autorregulación en niños. *Tesis Psicológica*, (2), 35-47. <https://www.redalyc.org/pdf/1390/139012670004.pdf>

Miller, C. (d.g.). *De qué manera afecta el trauma a los niños en la escuela*. Child Mind Institute. <https://childmind.org/es/articulo/como-el-trauma-afecta-a-los-ninos-en-la-escuela/>

Miravalles, A. F. (2019). *El apego en el aula: pautas para comprenderlo y comenzar a modificarlo*. <https://annafores.wordpress.com/2019/01/16/el-apego-en-el-aula-pautas-para-comprenderlo-y-comenzar-a-modificarlo/>

Motos, T. (1983). *Iniciación a la expresión corporal*. Humanitas.

Munakata, Y., Michaelson, L., Barker, J., & Chevalier, N. (2013). El funcionamiento ejecutivo durante la infancia y la niñez. *Enciclopedia sobre el desarrollo de la primera infancia*. <http://ceril.net/index.php/articulos?id=469>

Navajas, R. (2017). Cuerpo emocional y trauma: guía terapéutica expresivo-corporal en la construcción del autoconcepto e imagen proyectada en mujeres que han sufrido maltrato. *Arteterapia*, 12, 219-231. <https://www.ucm.es/data/cont/media/www/pag-112877/57573-116313-2-PB.pdf>

Navarrete, C. A. (2000). *Investigación sobre: El entorno familiar de la niñez y la adolescencia en las Regiones Autónomas del Caribe Nicaragüense al 31 de agosto del 2000*. Entorno Familiar de la Niñez y la Adolescencia del Caribe Nicaragüense – FADCNIC. <https://docplayer.es/220553005-Investigacion-sobre-el-entorno-familiar-de-la-ninez-y-la-adolescencia-en-las-regiones-autonomas-del-caribe-nicaraguense-al-31-de-agosto-del-2000.html>

- Oriol-Bosch, A. (2012). Resiliencia. *Educación médica*, 15(2), 77-78.
https://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1575-18132012000200004
- Ortega, D. (2019ko ekainaren 11an). La segregación escolar “se agrava” en Vitoria y llega a los institutos. *Noticias de Álava*.
<https://www.noticiasdealava.eus/araba/2019/06/11/segregacion-escolar-agrava-vitoria-llega/455839.html>
- Piaggio, A. M. R. (2009). Resiliencia. *Revista Psicopedagogía*, 26(80), 291-302.
<http://pepsic.bvsalud.org/pdf/psicoped/v26n80/v26n80a14.pdf>
- Pino, M. J., & Herruzo, J. (2000). Consecuencias de los malos tratos, sobre el desarrollo psicológico. *Revista Latinoamericana de psicología*, 32(2), 253-275.
<https://www.redalyc.org/pdf/805/80532201.pdf>
- Ramirez, G. M. (2016). *Ansiedad en niños víctimas de violencia intrafamiliar* [Tesis de Grado, Universidad Rafael Landívar].
<http://recursosbiblio.url.edu.gt/tesiseortiz/2016/05/22/Lopez-Gilda.pdf>
- Romero, F. J. (2019). *Acompañando las heridas del alma. Trauma en la infancia y adolescencia*.
https://www.espiralesci.es/wp-content/uploads/Acomp_las_heridas_del_alma_FJ_Romeo.pdf
- Salcedo, L. J. A., & Carvalho, A. M. P. (2005). Maltrato infantil por agresores bajo efecto del alcohol. *Revista Latino-Americana de Enfermagem*, 13, 827-835.
<https://www.scielo.br/j/rlae/a/PTWSFLjG4Gck7bRYhK4LZLL/?lang=es>
- SAMHSA (2014). SAMHSA's working concept of trauma and framework for a trauma-informed approach. Rockville: National Centre for Trauma-Informed Care (NCTIC), SAMHSA.
- Santana-Tavira, R., Sánchez-Ahedo, R., & Herrera-Basto, E. (1998). El maltrato infantil: un problema mundial. *Salud pública de México*, 40, 58-65.
https://www.scielosp.org/article/ssm/content/raw/?resource_ssm_path=/media/assets/spm/v40n1/Y0400109.pdf

Serisola, C. (2003). *Resiliencia y programas preventivos*.

Sierra García, P., & Moya Arroyo, J. J. (2012). El apego en la Escuela Infantil: algunas claves de detección e intervención. *Psicología educativa*, 18(2), 181-191.
<https://journals.copmadrid.org/psed/art/ed2012a18>

Soto-Lagos, A., & Rubí-González, P. (2021). Experiencias adversas en la infancia, funcionalidad familiar y salud mental. *Cuadernos de Trabajo Social*, (22), 11-24.
https://www.researchgate.net/profile/Adolfo-Soto/publication/353852456_Experiencias_adversas_en_la_infancia_funcionalidad_familiar_y_salud_mental/links/6115acb8169a1a0103f943d5/Experiencias-adversas-en-la-infancia-funcionalidad-familiar-y-salud-mental.pdf

Tess, M. E. V., Cunningham, N. R., & Solórzano, A. G. (2008). La desintegración familiar y el aprendizaje en niñas y niños de IV grado. *Ciencia e interculturalidad*, 1(1), 45-61.
<https://www.lamjol.info/index.php/rci/article/view/584>

Toth, S. L., & Cicchetti, D. (2013). A developmental psychopathology perspective on child maltreatment. *Child maltreatment*, 18(3), 135-139.

Touza Garma, C. (2002). *Las consecuencias del maltrato y del abandono en el desarrollo socioemocional de niños y adolescentes institucionalizados*. Universidad Complutense de Madrid. <https://eprints.ucm.es/id/eprint/3028/1/T21790.pdf>

Váldez López de Morales, C. A. (2005). *Desintegración familiar y sus efectos en el ámbito educativo*. Universidad de San Carlos de Guatemala.
http://www.repositorio.usac.edu.gt/9550/1/15_1281.pdf

Van der Kolk, B. (2017). *El cuerpo lleva la cuenta. Cerebro, mente y cuerpo en la superación del trauma*. Editorial Eleftheria.

Varela, J. J., Torres-Vallejos, J., González, C., & García, O. (2020). La percepción de apego con la escuela como un factor protector para conductas antisociales en escolares chilenos. *Psykhé (Santiago)*, 29(2), 1-12.
https://scielo.conicyt.cl/scielo.php?pid=S0718-22282020000200102&script=sci_arttext

Verde, F. (2005). *Expresión corporal, movimiento, creatividad, comunicación y juego*. Editorial Síntesis.

Zuazo-Olaya, N. T. (2014). Causas de la desintegración familiar y sus consecuencias en el rendimiento escolar y conducta de las alumnas de segundo año de la Institución Educativa Nuestra Señora de Fátima de Piura. Tesis de Maestría en Educación con Mención en Psicopedagogía. Universidad de Piura. Facultad de Ciencias de la Educación. Piura, Perú.
https://pirhua.udep.edu.pe/bitstream/handle/11042/1818/MAE_EDUC_110.pdf?sequence=1&isAllowed=y

9. ERANSKINAK

9.1 Eranskinak I: Behaketa taula

BEHAKETA TAULA

Data:.....


Taldea:.....


IZENA	Modu aktiboan parte hartzen du	Eskatzen zaiona ahalik eta hoberen egiten saiatzen da	Lotsa gaitzeko gai da eta naturaltasunez hartzen du parte	Interesa azaltzen du, inzialiba dauka eta gustura aritzen da	Sozialki modu egokian harremantzen da	Modu egokian komunikatzeko gai da	Bere ikaskideekin harreman on bat edukitzeko gai da	Besteak errespetuz tratatzeko eta elkarlanean lan egiteko gai da	Arreta mantentzeko gai da	Emozioak kudeatzeko gai da (haserreak, agresibitatea ...)	Hizkuntza garatuta dauka eta ez dauka hizkuntzarekin inolako arazorik	Arraza ezberdinek o pertsonak errespetuz tratatzen ditu	LGTBI taldeko pertsonak errespetuz tratatzen ditu

9.2 Eranskinak II: Galdetegia

Trauma eta eskola

Kaixo, Enola Leiva deitzen naiz eta Lehen Hezkuntzako graduaren ikaslea naiz. Ikasturte honetan, Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz eta oso lagungarria izango litzaidake hurrengo galdetegia erantzuten bazenuten. Mila esker.

 **leivaenola@gmail.com** (no compartidos)
[Cambiar de cuenta](#)

 Borrador restaurado

***Obligatorio**

Zein etapetan irakasten duzu gaur egun? *

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Otro: _____

Zure ikasleen egoera sozial, ekonomiko eta emozionalari garrantzia ematen diozu? *

Bai

Ez

Aurrekoan baietz erantzun baduzu, ze iturri erabiltzen duzu informazio hori eskuratzeko?

Familia

Irakasleak

Ikasleak

Otro: _____

Zein garrantzia ematen diozu ikasleekin eta ikasleen familiekin duzun harremana? *

Handia

Ertaina

Gutxi

Ezer

Nolako ezagutza duzu traumen inguruan? *

- Asko
- Nahikoa
- Oso gutxi
- Ezer

Traumen inguruko formakuntzaren bat izan duzu noizbait? *

- Bai
- Ez

Baietz erantzun baduzu, ze nolako informazioa landu eta eskuratu zenuen?

Tu respuesta

Zure ustez traumen inguruko formakuntza bat izatea garrantzitsua da irakasle batentzako? *

- Bai
- Ez

Izan duzu noizbait egoera zail bat bizi duen edo bizitzen ari den ikasleren bat? *

- Bai
- Ez

Aurrekoan baietz erantzun baduzu hurrengo kasu hauetatik adierazi zeintzuk diren *

- Abusu fisikoa
- Abusu sexuala
- Abusu emozionala
- Familiar arazo mentalak
- Familiar genero indarkeria
- Familiar alkohola, drogak...
- Familiar atxiloketak
- Gurasoen banaketa
- Abandonu emozionala
- Abandonu fisikoa

Zer egin zenuen honako egoera baten aurrean? Modu laburrean azaldu (zein izan zen arazoa, nola detektatu zenuen, norekin jarri zinen kontaktuan, nola lagundu zenion, zer egin zuen eskolak eta kasuaren amaiera) *

Tu respuesta

Baliabide nahikorik izan zenituen egoera honi aurre egiteko? *

- Bai
- Ez

Zure ustez egoera honi aurre egiteko zer egin beharko litzateke? *

Tu respuesta

Zure ustez, garrantzitsua al da ikasleen egoerak ezagutzea? *

- Bai
- Ez

Zein mailetan ezagutzen duzu zure ikasleen egoerak? *

- Ez ditut bat ere ezagutzen
- Gaietarik ezagutzen ditut
- Ongi ezagutzen ditut baina ez naiz arazo horietan sartzen
- Oso ondo ezagutzen ditut eta konpontzen saiatzen naiz

9.3 Eranskinak III: Elkarrizketarako galdetegia

I. Aurrera eramandako galdetegiari buruz

1. Ikastolako klaustro guztiari egindako galdetegia bidali diet, baina bakarrik 14 pertsonak erantzun egin dute. Zer pentsatzen duzue honi buruz? Ez zaie gaia interesatzen?
2. Galdetegia erantzun duten guztientzako, traumen inguruko gaia oso garrantzitsua iruditzen zaiela erantzun dute, baina haietatik 2-k bakarrik traumen inguruko formakuntzaren bat jaso dute inoiz, sexu abusuen ingurukoena eta terapia familiarrari buruzkoa. Zer uste duzue honen inguruan?
3. Bestalde, galdetegia erantzun dutenen %85,7-ak noizbait egoera zail bat bizi duen edo bizitzen ari den ikasleren bat eduki dute. Trauma horien artean errepikatuena gurasoen banaketagatik izan da %85,7rekin; ondoren, abusu fisikoa, familian genero indarkeriagatik eta abandonu emozionalagatik dira %50-ek bizi izan dutelako. %35,7rekin abandonu fisikoa, familian arazo mentalak eta abusu emozionala dugu. Azkenik, gutxien errepikatu direnak, %28,6rekin familian alkohola eta drograk, %21,4rekin familian atxiloketak eta azkenik, %7,1ekin abusu sexuala izan dira.

Honako egoeren aurrean, zer egin duten galdetzean, protokolo ezberdinak jarraitu dituztela, zuzendaritzako taldeei komentatu dietela, ikaslearekin hitz egin dutela,

familiarekin, inguruko jendearekin, zerbitzu sozialekin eta zuzendaritza taldearekin kontaktuan jarri direla eta eskolako aholkulariarekin harremanetan jarri direla erantzun egin dute.

- Zuen ustez egoera honen aurrean ondo egin dute?
 - Zer egin beharko litzateke?
4. Galdetegia erantzun duten %71,4-ak baliabide nahikorik izan ez dituztela esan dute, eta ikasleak inguratzen dutenen arteko koordinazioa eta formazio gehiago, behar dutela erantzun dute gehiengoak. Zer pentsatzen duzue honen inguruan?
5. Azkenik, galdetegiaren azken galderan guztiek erantzun egin dute haien ikasleen egoerak ezagutzea oso garrantzitsua dela, baina bakarrik %21,4-ak oso ondo ezagutzen ditu haien ikasleen egoerak eta konpontzen saiatzen dira. Besteek berriz, ez dira saiatzen edo gainetik ezagutzen dituzte haien ikasleen egoerak. Zer uste duzue?

II. Egindako behaketari buruz

- Ikusitakoa berari komentatu
- Ikasle bakoitzaren informazioa eskatu, behaketan ateratako informazioari zergati bat ateratzeko helburuarekin